



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

LEHENDAKARITZA

1. Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak	2
2. Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak	4
3. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzaren proiektuak garatzeko diru-laguntza	6
4. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak.....	8
5. Gazteen emantzipaziorako tokiko planak egiteko diru-laguntzak	10
6. Ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntzak.....	12
7. Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekiko lankidetzaren teknikorako proiektuetarako laguntzak ematea	14
8. Kanpo Ekintzaren arloan gazteak prestatzeko bekak 2023-2024.....	16
9. 2030 Agenda eta Trantsizio Sozialaren arloko prestakuntza-bekak	18
10. 2030 Agenda Bonuen Programa	20
11. Gaztemundu	22
12. Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko.....	24
13. Quebec eskualde estratergiakoekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuei laguntzeko 2023-2024ko programa	26
14. Euskal Etxeentzako dirulaguntzak 2023	28



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 31koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2023. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/06/2302644e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2400573e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua ekimen hauek bultzatzea da: gazte elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea xede duten erakundeek sustatutako lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak, aisialdiko hezkuntza sustatzeko ekimenak, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalentzako ikastaroak, eta euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzeko jarduera zehatzak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerranda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023. urtean 85 diru-laguntza eskaera erregistratu dira Gazteria Zuzendaritzan. Horietatik 74k jaso dute diru-laguntza, 3 eskatzailek atzera egin dute aurkeztutako eskaeran eta beste 8 ezetsi egin dira hainbat arrazoirengatik.

Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 799.884 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (800.000 €) %99,99, alegia.

- Lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak: 389.279 euro.
- Aisialdiko hezkuntza sustatzeko ekimenak: 41.386 euro.
- Dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak: 17.500 euro.



- d) Azkenik, urteroko programan jaso gabeko jarduera zehatzak, euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea helburu dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak: 351.719 euro.

Diruz lagundutako jarduera horiek erabilgarriak eta beharrezkoak dira gazte-elkartegintza sustatzeko, oro har, eta diruz lagundutako arloetan lekua duten jarduera eta programak bereziki, lehen deskribatutakoak. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru-laguntzak	55	74



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 1ekoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2023. urtean gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzekoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/06/2302800e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/11/2305309e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jarduerak gauzatzen laguntzea, Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko, bai eta gazteen arteko mugikortasunarekin edo elkartrukearekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen, hedapen edo prestakuntza jarduerak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023. urtean 17 diru-laguntza eskaera erregistratu dira Gazteria Zuzendaritzan. Horietatik 13k jaso dute diru-laguntza, eskatzaile batek atzera egin du aurkeztutako eskaeran eta beste 3 ezetsi egin dira hainbat arrazoirengatik.

Esleitutako diru-laguntzen guztizko zenbatekoa 138.023 eurokoa izan zen, hau da, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (145.000 €) % 95,19.

Garbi dago jarduera guztiek betetzen dituztela aginduaren xedea, hori sorrerako filosofia, hau da, gazteen integrazioa bultzatzeko tresna bat, beste bat, izatea; kasu honetan, gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jardueren bidez, erakunde eskatzaileen ekimenarekin, askatasuna eta sormenerako ekimena baitituzte edozein jarduera edo programa planifikatu eta antolatzen. Hainbat erakundetako elkartutako herritarren ekimenetik sortutako jarduerak dira, zalantzarik gabe; izan ere ezinbestekotzat



jotzen dute gazteen arteko mugikortasuna Europako kide izateko sentimendua sustatzeko, eta gaitasunak, trebetasunak eta kompetenziak garatuz sozialki eta profesionalki integratzen laguntzeko.

Hala, diruz lagundutako jarduerak erabilgarri eta beharrezkotzat joko dira gazteriarentzat, oro har, diren programa eta zerbitzuak eta, bereziki, gazteen arteko mugikortasuna, lehen deskribatutakoa, garatzeko. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru-laguntzak	15	13



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzako proiektuak garatzeko dirulaguntza

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 16koa, Lehendakarietzako idazkari nagusiarena, garapenerako lankidetzako erakundeei 2023an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkezteko deialdia luzatzen diena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301475e.pdf>

Emate-erabakia:

EHAAn argitaratzeko zain

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEei zuzendutako dirulaguntza da, garapen-bidean dauden herrialdeetan egiteko lankidetzako proiektuak aurkezteko. Programaren helburua da Euskadiko gazteak elkartasun eta parte-hartze balioetan sentsibilizatzea. GGKEek 800 euro jasotzen dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen kooperante bakoitzagatik, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan hautatutako gazte boluntarioaren egonaldi- eta mantenu-gastuak zati batean ordaintzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

39 lankidetzako proiektu aurkeztu ziren, eta 149 gaztekin zuten eskaera, eta ondoren, horietatik 67k hartu zuten parte. Gazte horiek lankidetzako proiektuetan hartu dute parte udako hiru hilabeteetan, Amerikako, eta Afrikako 11 herrialdeetan.

Aurrekontu-exekuzioari dagokionez, partidaren kreditua 80.000 eurokoa zen, eta horietatik 53.600 euro exekutatu dira.

Programaren erabilgarritasun eta inpaktu soziala handia dela uste da, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdetegietan, galdetu zitzaizen zenbateraino dauden ados esaldi hauekin, eta haien balorazioa ikus daiteke:



EGL programari esker, garapenerako lankidetzaren proiektuak ezagutu eta horietan parte hartu ahal izan dut	8,35
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloko esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	8,8
EGL programak garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentibilizatuago egotea bultzatu du.	9,6
EGL programak beste lurralde batzuetatik pertsonenganako eta errealitateenganako begirada enpatikoagoa izaten lagundu du.	9,6

Ilido beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila (9,4 puntu).

Horregatik guztiagatik, betetze maila egokitzat jotzen da, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituelako eta gizartean eragin handia duelako.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
GGKE parte-hartzaileak	40	39



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 17koa, Lehendakartzako idazkari nagusiarena, 2023. urterako Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301489e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/09/2304397e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa honen helburua honako hau da: 22 eta 30 urte bitarteko gehienez 100 gazte herrialde eta lankidetzako proiektu jakin batzuetara joateko erraztasunak ematea. Proiektu horiek proiektuen aurkezpena urtero arautzen duen Ebazpenean xedatutakoaren arabera hautatzen dira (EBAZPENA, 2023ko martxoaren 16koa, Lehendakartzako idazkari nagusiarena, garapenerako lankidetzako erakundeei 2023an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkezteko deialdia luzatzen diena).

Programa honen xedea da Euskadiko gazteak sensibilizatzea hegoaldeko herrialdeetako lankidetzakintzetan, eta euskal gazteengan herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzea. Horretarako, lerro honek pertsonen helmugarainoko bidaia diruz laguntzen du, baita bidaia-asegurua eta bisa-gastuak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

149 gaztek egin zuten eskaera, eta ondoren, horietatik 67 hartu zuten parte. 39 Garapenerako gobernu kanpoko erakundek ere hartu zuten parte, 17 Euskadikoak eta 22 xede-herrialdeetakoak, eta 28 lankidetzako proiektu garatu ziren, Amerika eta Afrikako 11 herrialdetan.



Aurten 67 gaztek parte hartu dute. Datu hori ontzat jotzen da kontuan hartzen bada, 2023an, bi urteko pandemiaren ondoren, atzerrira nolabaiteko normaltasunez eta bermeekin bidaiatzeko bigarren urtea izan zela.

2023an bigarren aldiz egin zitzaien inkesta kuantitatiboa gazteei. Inkesta horien arabera, parte hartu duten gazteek 8,1 puntu eman dizkiote programari, oro har. Hau da, pertsonak nota altua eman diote programari.

Programaren erabilgarritasun eta inpaktu soziala handia dela uste da, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdetegietan, galdetu zitzaien zenbateraino dauden ados esaldi hauekin, eta haien balorazioa ikus daiteke:

EGL programari esker, garapenerako lankidetzaren proiektuak ezagutu eta horietan parte hartu ahal izan dut	8,35
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloko esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	8,8
EGL programak garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentsibilizatuago egotea bultzatu du.	9,6
EGL programak beste lurralde batzuetatik pertsonenganako eta errealitateenganako begirada enpatikoagoa izaten lagundu du.	9,6

Ilido beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila (9,4 puntu).

Horregatik guztiagatik, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituela eta gizartean eragin handia duela uste da.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Programan parte hartzen duten gazteak	100	67



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteen emantzipaziorako tokiko planak egiteko diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko urriaren 11koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzen baitira eta horietarako deialdia egiten baita gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzea helburu duten toki mailako ekimenak bultzatzeko 2023. urtean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/10/2304865e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2400665e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da diru-laguntzak ematea toki-erakundeek gazteen emantzipaziorako planak edo emantzipazioari lotutako beste ekimen batzuk egiteko.

Diruz lagun daitekeen arloa: diagnostiko-azterlanak, gazteen emantzipazio-planak, gazte-planak edo gazteen emantzipazio-prozesua laguntzeko beste ekimen batzuk egiteko gastuak ekitaldian zehar.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

3 eskaera erregistratu dira eta hirurak jaso dute diru-laguntza.

Programaren betetze-maila baxua da ikuspuntu ekonomikotik, 48.478,65 euroko diru-laguntzak eman baitziren, hau da, aurrekontu erabilgarriaren %16,16. Hala ere, kontuan izan behar da sortu berri den laguntza-lerro baten hirugarren edizioa dela, eta, beraz, laguntza horren onuradun izan daitezkeen erakundeek oraindik ez dutela ezagutzen.

Diruz lagundutako jardueren artean, kasu batean emantzipazio-plana egitea izan da, interes handiko jarduera, planek gazte-politika publikoentzat ikuspegi integrala islatzen baitute, helburuak, ekintzak eta emaitzak aztertzeko eta ebaluatzeko tresnak biltzen dituztelako. Beste 2 kasutan herriko gazteen emantzipazioan eragin zuzena duten faktoreen egoerari buruzko diagnostiko-azterlanak egin dira.



Horrelako azterlanak egitea oso positibotzat jotzen da, politika publiko eraginkorrak diseinatzeko funtsezko elementua baitira.

Diruz lagundutako jarduerak interes ukaezina dute deialdiaren helburuei dagokienez; izan ere, honako premisa hau hartzen da abiapuntutzat: gazte-politikek bizi-baldintzen benetako hobekuntzan eragin dezaten, eragin nahi duten gizarte-errealitatea zehatz-mehatz ezagutu behar dute. Eta horixe da, hain zuzen ere, deialdi horren xede den jarduera motarekin lortzen dena.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Toki erakundeentzako diru-laguntzak, gazteen emantzipazio planak eta ekimenak garatzeko	20	3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntzak

2.- Araua

118/2022 DEKRETUA, urriaren 11koa, Ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204558e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/02/2300548e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/11/2305239e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programaren helburu nagusia da I+G+bko zeharkako trakzio-proiektu berriak (9) identifikatzea, baldin eta proiektu horien inplementazioak emaitza nabariak lortzen baditu eta emaitza horiek euskal gizarteak ikus baditzake. Proiektu horiek balio-kateko eta ezagutzaren sorkuntzako hainbat eragile publiko eta pribatuk parte hartuko dute, eta espezializazio adimenduneko arloen arteko lankidetzaren indartuko dute, herrialdeko eremu estrategiko gutxi batzuetan: zahartze osasuntsua, mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko deialdian 19 eskabide aurkeztu ziren, guztira, zeharkako hiru trakzio ekimenetan. 6 trakzio proiektu handiak onartu dira, 4 Zahartze Osasuntsuan, 1 Mugikortasun Elektrikoan eta 1 Ekonomia Zirkularrean. Arrakasta-tasa % 47koa izan da, aurkeztutako 19 eskaeretatik 9 onartu baitziren. Eta ia 195 mila euroko laguntzak eman dira guztira. Horri esker, 47,6 milioi euro mobilizatu ahal izango dira hurrengo fasean, I+Gko trakzio-proiektuak diseinatu ondoren, hori baita laguntza-programarekin diruz laguntzen den jardueraren. Horrek esan nahi du, trakzio-proiektuak diseinatzeko dirulaguntza gisa esleitutako euro bakoitzeko, gerora 245 euro mobilizatuko direla horiek garatzeko eta gauzatzeko laguntzetan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntza-programaren deialdira aurkeztutako eskabideen kopurua	45	19
Laguntza-programaren deialdian onartutako eskabideen kopurua	9	6
Onartutako trakzio-proiektuak diseinatzeko emandako dirulaguntza	1,2 milioi euro	194.358 euro
Emandako dirulaguntzen ondorioz diseinatutako trakzio-proiektuak gauzatzeko aurreikusitako aurrekontua	17 milioi euro	47,6 milioi euro



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekiko lankidetza teknikorako proiektuetarako laguntzak ematea

2.- Araua

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetza teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

- 47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa: [1901625e.pdf \(euskadi.eus\)](https://www.euskadi.eus/1901625e.pdf)
- EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 10ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Flandria, Gales eta Korsikako Europako eskualde estrategikoekin 2023an lankidetza teknikoan aritzeko proiektuetarako laguntzak emateko. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/01/2300283e.pdf>
- EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 2koa, Europar Batasunerako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita Flandria, Gales eta Korsikako eskualde estrategikoekin 2023an lankidetza teknikoak egiteko laguntzen deialdia. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302319e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

47/2019 Dekretuak "Nazioartekotzeko 2020 Estrategia Markoa, Basque Country – EBC 2020 Estrategia" delakoan diseinatutako nazioartekotze-ekimenen esparruan kokatzen du Kanpo Ekintzarako Plana. Plan horretan, eta Euskadiren garapen iraunkor eta jasangarriari laguntzeko helburu estrategikoarekin, kanpoan sektore anitzeko interesak sustatuz. Proiektatutako jarduketan artean, eskualde estrategikoekin aldebiko lankidetza-hitzarmenak ezarri eta abian jartzeko beharra dago. Alde horretatik, alde biko harremanak areagotzeko eta elkarren intereseko aliantza eta lankidetza berriak ezartzeko, estrategikotzat jotzen diren eskualdeekin lankidetza-hitzarmenak eta -memorandumak sinatu dira. Atzerrian estrategikoak diren eskualdeetan lankidetza teknikorako proiektuak bultzatzeko eta sustatzeko diru-laguntzen ildo bat arautzen du dekretuak. Europan, bazkide estrategikoen sareak Flandes, Gales eta Korsika eskualdeak osatzen ditu.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023rako, Flandes, Gales eta Korsikako Europako Eskualde Estrategikoetako pertsona juridikoekin egingo diren aldebiko jarduera- eta lankidetzaproiektuak finantzatzeko laguntzetarako deialdia egin zen. Diru-zuzkidura 40.000 eurokoa izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura. Zazpi proiektu aurkeztu ziren eta zazpi proiektuak diruz lagundu ziren. Diruz lagundutako proiektuak 34.380 eurokoak izan ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekiko lankidetzateknikorako proiektuetarako laguntzak.	8	7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kanpo Ekintzaren arloan gazteak prestatzeko beka 2023-2024

2.- Araua

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

- 12/2019 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900540e.pdf>
- EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 30ekoa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez beka iragartzen baitira kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko 2023-2024 aldian. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304360e.pdf>
- EBAZPENA, 2023ko abenduaren 20koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez beka esleitzen baitira, 2023-2024an Europar Batasuna eta Kanpo-Harremanen eremuan gazteak prestatzeko. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305781e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

12/2019 Dekretuaren helburua da Kanpo Ekintzaren eremuan gazteen prestakuntza bultzatzea, hiru modalitatetan: Europako Gaiak, Euskal Komunitatea kanpoan eta Kanpo Harremanak. Gainera, Europar Batasunean eta Kanpo Ekintzan etorkizuneko eskola sortzea ere bada helburua.

Beka unibertsitateko gradu-titulua duten eta 28 urte bitarteko gazteentzat dira, bekaren deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean gehienez ere.

Beken iraupena hamabi hilabetekoa da.

Beka Gasteizera eta Euskadik atzerrian dituen ordezkarietara bideratuko dira.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023-2024 aldirako hamalau beka eman ziren eta zortzi esleitu.

Aurrekontua aurrekontu osoaren %50 baino gehiago gauzatu zen. 2023-2024rako deitutako hamalau beken aurrekontua 288.000 €-koa izan zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Kanpo ekintzako beka	14	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2030 Agenda eta Trantsizio Sozialaren arloko prestakuntza-bekak

2.- Araua

34/2023 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Programaren araua: 34/2023 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duena.

Deialdia: EBAZPENA, 2023ko martxoaren 30ekoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko 2023-2024rako beken deialdia egiten duena.

Emate-ebazpena: EBAZPENA, 2023ko ekainaren 20koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko bi beka hautatzeko prozesuaren deialdia ebazten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gizarte-hedapena eta herritarren inplikazioa Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan. Goi-mailako edo graduako unibertsitate-titulazioa duten pertsonentzat, deialdiaren ebazpena argitaratu aurreko 5 urteetan lortuak.

Helburua: profesional gazteak erakartzea eta prestatzea, 2030 Agendaren esanahiaren zabalkundea hobetzeko eta GJHeK ordezkatzan duten eraldaketan gizarteratzeko mekanismoak antolatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako beken kopurua: 2 (2 emakume; 0 gizon)

Kreditua: 70.000 €

Hartutako betebeharrak: 36.417,86 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Esleitutako beka kopurua	4	2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2030 Agenda Bonuen Programa

2.- Araua

23/2022 DEKRETUA, otsailaren 15koa, 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Programaren araua: 23/2022 DEKRETUA, otsailaren 15koa, 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak arautzen dituena

Deialdia: EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2023rako 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak deitzen dituena

Emate-ebazpena: EBAZPENA, 2023ko ekainaren 13koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2030 Agenda Bonuen Programaren 2023ko dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2030 Agenda Bonuen Programak eragin biderkatzailea lortu nahi du: GJHen zabalkundean, ezagutzan eta atxikimenduan, eta baita zeharkako lankidetzak sustatzeko konpromisoan ere.

2030 Agendaren arloko proiektuei dirulaguntzak ematean datza, EAEko elkarten sareko erakundeak garatutako dibulgazio-, hezkuntza-, prestakuntza- edo herritarren partaidetza-ekintzak sustatzeko eta ugaritzeko laguntza gehigarri gisa.

Helburuak honako hauek dira: 2030 Agendaren esanahiari, proiektioari eta garrantziari buruzko gizarte-ezagutza handiagoa lortzea; elkarrizketa, parte-hartzea eta inplikazio sozialerako bideak eskaintzea GJHei dagokienez; hezkuntza-tresnak eta -ekimenak indartzea, giza garapenaren eta garapen jasangarriaren pedagogia eta 2030 Agenda Gizarte Kontratuaren printzipio eta balioak garatzeko; eta GJHak erakundeen, sektoreen edo erakundeen jarduera-eremu guztietan ezartzeko prestakuntza-tresnak babestea.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Jasotako eskaeren kopurua: 167

Onartutako proiektuen kopurua: 128

Erakunde onuradunen kopurua: 67

Erabilitako kreditua: 500.000 € (zuzkiduraren %100)

Hartutako betebeharrak: 462.097,69 €

Diruz lagundutako proiektuaren batez besteko zenbatekoa: 3.610,14 €

Herritarren parte-hartzea: 31.246 pertsona (16.651 emakume eta 14.595 gizon)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	100	128



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gaztemundu

2.- Araua

316/2003 DEKRETUA (8/2004 EHAA), abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena.
38/2015 DEKRETUA (EHAA. 65/2015 Dekretua, martxoaren 31koa, Gaztemundu programa arautzen duen Dekretua aldatzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

316/2003 DEKRETUA (8/2004 EHAA), abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena.
38/2015 DEKRETUA (EHAA. 65/2015 Dekretua, martxoaren 31koa, Gaztemundu programa arautzen duen Dekretua aldatzen duena.
EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 30ekoa (EHAA. N 170/2023), Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, Gaztemundu programaren 2023ko ediziorako deialdia egiten duena.
EBAZPENA, 2023ko urriaren 27koa (EHAA. N 213/2023), Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2023ko Gaztemundu programan parte hartuko duten pertsonak hautatzeko dena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Urtero, Gaztemundu programak gai monografiko bat trebatzen du —euskal instrumentu tradizionalak, dantza, gastronomia eta kultur kudeaketa—, eta, aldi berean, prestakuntza-bisitekin osatzen da.

Beraz, Gaztemundu programaren helburuak honako hauek dira:

- a) Euskal Etxeetako gazteak gai horietan trebatzea eta egungo Euskadiren ezagutzan sakontzea, eta, aldi berean, Euskadin lan egiten duten eta dauden erakunde, enpresa eta pertsonekin harremanetan jartzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskaditik kanpo bizi diren euskal gazteen arteko harreman-sareak sustatzea, gero kanpoan bizi diren gazte horiek Euskal Etxeetan parte har dezaten.
- c) Diasporako gazteen artean egungo euskal errealitatearen ezagutza zabaltzea, Euskal Etxeen etorkizunarekiko konpromisoaren eta loturaren bidez.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. Artikuluan xedatutakoa betetzen da, bi sexuek ordezkari baitute Ebaluazio Batzordean.

Programaren gehieneko aurrekontua: 70.000 euro.

Gaztemundu 2023 programan parte hartu zuten pertsonen kopurua: 15

2023ko edizioan, pandemiaren osteko egin den bigarrena, parte-hartzaileek oso positibotzat jo zuten prestakuntza, esperientzia eta programaren gainerako alderdiak —hegaldiak, Euskal Herriko joan-etorriak, mantenua, ostatua, gida eta programaren gainbegiratzea— "oso onak" zirela esan zuten. Item hauekin:

- Aurretiko antolaketa: 9,4/10
- Laguntza: 10/10
- Ostatua: 8,5/10 —geletan leku gehiago eskatzen dute—
- Bazkariak eta afariak: 9,2/10
- Garraioa: 9,1/10
- Programaren edukiaren balorazio orokorra: 9,87/10

Aipatzekoa da, halaber, 2023an, Kanpoan den Euskal Gizataldeen VIII. Mundu Biltzarraren urtean hain zuzen ere, Gaztemundu 2023 programaren bigarren zatiak (bigarren astea) bat egin zuela 2023ko Mundu Biltzar honekin, gazte horiek Munduko Biltzar honetan parte hartu baitzuten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hautatutako pertsonen kopurua	15	15



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsoneri laguntzeko

2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsoneri laguntzeko dira.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsoneri laguntzeko dira.

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 1ekoa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena. Honen bidez, euskal etxeei dirulaguntzak emateko 2023. urteko deialdia egiten da, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia-faltan dauden pertsoneri laguntzeko.

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 5ekoa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, Euskal Etxeei dirulaguntzak esleitzen dizkiena 2023rako, atzerriko euskal gizataldeetako kideen premia larriari eta laguntza-beharrei erantzuteko.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Gizataldeetako kideei premia larriko laguntzak emateko urteroko deialdia.

Laguntzak emateko, eskabideetan egiaztatutako egoeraren larritasuna baloratuko da, honako inguruabar hauetan oinarrituta:

- a) Familiaren egoera ekonomikoa, herrialdeko batez besteko errentari dagokionez.
- b) Osasun-kontingentziaren edo premia larriko egoeraren larritasuna.
- c) Eskatutako zenbatekoa egokia den egiaztatutako premiari aurre egiteko.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Laguntzen zenbatekoa 212.000 eurokoa da, eta osorik gauzatu dira.

Deialdiaren Ebazpenaren Ebaluazio Batzordearen osaeran, ahal den neurrian, gizonen eta emakumeen parekotasun-irizpideari erreparatzen zaio, batzordeko kideak lanpostuaren arabera izango baitira.

Ebaluazio Batzordearen osaeran emakume bat eta lau gizon daude.

Laguntzak probezaren feminizazio-fenomeno baten barruan ematen dira; izan ere, programaren familia-unitate onuradunen % 72 inguru diru-sarrera erregularrik gabeko emakumeak izaten dira.

Gainera, honako hau adierazi behar da:

- Beharra duten pertsonak artatzeko helburua urtez urte bete da. Euskal etxeek premia handia duten pertsonen artean bideratzen dituzte laguntza horiek, eta, askotan, ez dute beren egoera penagarria adierazi nahi bere inguruko kideen aurrean. Hori dela eta, euskal etxeen bitartekaritza ezinbestekoa da, eta duela urte askotatik ari dira elkartasun -lan horiek altruismo osoz egiten.
- Esleitutako pertsonen kopurua eta zenbatekoa, herrialdearen arabera:
 - Kuba 43 pertsona 103.794,57 euro
 - Argentina 19 pertsona 32.421,60 euro
 - Venezuela 18 pertsona 43.928,73 euro
 - Txile 16 pertsona 29.891,30 euro
 - Peru 1 pertsona 1.718,64 euro
 - Kolonbia 1 pertsona 155,15 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Premia larrian dauden familia-unitateei laguntza ematea	100	98
Laguntza-programetan parte hartzen duten pertsonak —Planaren indarraldian aurreikusitako laguntza-kopurua—	500	500



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Quebec eskualde estrategikoarekin lankidetzan teknikoan aritzeko proiektuei laguntzeko 2023-2024ko programa

2.- Araua

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, zeinaren bidez arautzen baita Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzan teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

47/2019 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/04/1901625a.shtml>

Quebecekin lankidetzan proiektu teknikoetan aritzeko laguntzen 2023-2024ko deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/02/2301057a.shtml>

Laguntzak emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/07/2303306a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzen xedea da Quebec eskualde estrategikoko pertsona juridikoekin egiten diren bi aldeko jarduerak eta lankidetzan proiektuak finantzatzea, 2023-2024an; proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoak eta Quebec-ek 2017ko urriaren 31n sinatutako Elkar Ulertzeko Memorandumean jasotako gaiei buruzkoak izango dira. Hona hemen gai horiek:

- Kultura: jakintza eta esperientzia trukatzeko kulturaren eremuan; bereziki, arlo hauetan: ondarea, artisten mugikortasuna, truke profesionalak (artistak, sortzaileak edo kultura-industriak) eta obren, ondare-ondasunen eta kultura-produktuen zabalkundea.
- Hizkuntza-politika: adituen eta ikertzaileen arteko trukeak egitea, bakoitzaren hizkuntzaren garapen eta sustapenaren eremuan, eta eremu horretako informazioa eta jardunbide onak trukatzeko.
- Ekonomia: negozioak eta inbertsioak egiteko aukerei buruzko informazioa trukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Quebec-en artean. Nork bere itsas ekonomian dituen hazkunde iraunkorreko esperientziak trukatzeko.
- Ingurumena: informazioa eta jardunbide onak trukatzeko, klima-aldaketaren kontrako borrokari eta ingurumenaren babesari buruz.
- Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza: informazioa eta esperientziak trukatzeko eta nazioarteko partzuergoetan baterako jarduerak sustatzeko.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio; zehazki, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzekoak ere)

Emaitzak: 5 eskaera aurkeztu ziren 2023-2024 deialdian; horietako bat baztertu egin zen, eskatzailea ez baitzen pertsona juridiko pribatua, eta beste eskaera bat ukatu egin zen, ez baitzuen behar adina punturik lortu; gainerako hirurak, berriz, onartu ziren.

Aurrekontua betearaztea: Hautatutako 3 proiektuei dirulaguntza handiena eman zitzaien, hau da, 5.000 euro. Aurrekontua: 2023: 80.000 euro; 2024ko konpromiso-kreditua: 80.000 euro

Sektore hartzaileak: EAEn egoitza duten izaera juridiko pribatuko erakundeak, kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin alde biko jarduera- eta lankidetzaproiektuak dituztenak.

Zer onura eta inpaktua dakarren gizartean:

Jarduketa hau tresna eraginkorra da Euskadiren eta estrategikotzat jotzen diren eskualdeen arteko harremanak sustatzeko, eta Euskadik kanpoan dituen interesak bultzatzeko. Deialdi honetara eskaera gutxi aurkeztu badira ere, jarduketa garrantzitsua da Quebec-ekin harremanak sakontzeko eta baterako proiektuak bultzatzeko, interes komunekiko puntuak bilatzeko eta etorkizunean garrantzi handiagoko alde biko proiektu bateratuak sustatzeko.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	14	3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Etxeentzako dirulaguntzak 2023

2.- Araua

50/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, Euskal Etxeentzako dirulaguntzen erregimena arautzen duena (69/2008 EHAA)

175/2014 DEKRETUA, irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako dirulaguntzen araubidea arautzen duen Dekretua aldatzen duena (EHAA, 176/2014 zk.)

186/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Etxeentzako dirulaguntzen araubidea arautzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duena (EHAA, 156/2021 zk.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

50/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, Euskal Etxeentzako dirulaguntzen erregimena arautzen duena (69/2008 EHAA)

175/2014 DEKRETUA, irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako dirulaguntzen araubidea arautzen duen Dekretua aldatzen duena (EHAA, 176/2014 zk.)

186/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Etxeentzako dirulaguntzen araubidea arautzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duena (EHAA, 156/2021 zk.)

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 13koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, 2023an euskal etxeei emango zaizkien dirulaguntzetarako deia egiten duena (EHAA, 144/2023 zk.)

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 12koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, 2023. urtean Euskal Etxeei eman zaizkien dirulaguntzen berri ematen duena (EHAA, 245/2023 zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Etxeentzako dirulaguntzak maiatzaren 27ko 8/1994 Lege hori baino lehenagotik daude, ia Eusko Jaurlaritza sortu zenetik. Aldian-aldean, gai horren berri eman da Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordean —lege horrek sortutako harreman-organoetako bat—.

Jardueretako eta funtzionamenduko gastuak —gastu arruntak— eta azpiegiturretako gastuak diruz laguntzen dira. Esleipenak euskal etxeak aurkeztutako eskabideko aurrekontuan jasotako gastuari egiten dio aurre.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Emakumeak programatutako jardueretan duen parte-hartzeari buruzko txostena aurkeztea eskatzen da, bai eta dirulaguntza eskatzen duen erakundeko zuzendaritza-organoetan sartzea ere.

Halaber:

- Garatu beharreko programa, jarduera edo ekintzetan genero-ikuspegia baloratzen da (gehienez 10 puntu).
- Aurreikusitako helburu eta jardueretan emakumeei eragiten dien desberdintasuna kontuan hartzen da: 2,5 puntu.
- Azken memorian proiektuaren edo jardueraren genero-eraginari buruzko erreferentzia bat aurkezteko konpromisoa, jarduketaren onuradunengan edo hura gauzatuko duten langileengan: 2,5 puntu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak (*)

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Euskal Etxeek euskal errealitatea hedatzeko mekanismo gisa duten zeregina indartzeko laguntzak	10	(*)
Lagundutako Euskal Etxeen jarduera kopurua —Planaren indarraldi osoan lagundutako jarduera guztien adierazle orokorra—	3.500	(*)
Sartuta dauden sozietateetan Euskal Etxeen jarduerak sustatzeko laguntzen kopurua	300	(*)

(*) Oraindik ez da justifikazio guztien azterketa zehatzik egin. Beraz, ez dugu aurtengo datu zehatzetan oinarritutako estimaziorik. Hala ere, esan daiteke, azken urteetako azterketei erreparatuta, jarraipen-eta egonkortasun-ildo bat ikusten dela goiko taulan jasotako adierazleei dagokienez (zabalkundea, euskal etxeei emandako laguntza eta haiek aurrera eramandako jarduerak). Ondorioz, litekeena da 2023an goiko taulan jasotako aurreikuspenak bete izana.